

Martxoko dominak


Urrea



IBAIONDO HOCKEY TALDEA

Mailaz igotzeko gero eta aukera gehiago du, hil honetan lidergoa lortu eta gero.

Zilarra



ALBERTO MARTINEZ

Valentzian, Murtzian eta Portugalen podiumeko lehen hiruren artean sailkatu zen.

Brontzea



LILATON

Lasterketa honetan parte hartu duten laurhun emakumezkoentzat.

"Gazteek lehenago hasi behar dute partiduak jokatzeko"

Julen Castellanos etorkizun handiko pilotaria da. Intxaurrondo Pilota Elkarteko aurrelariak Zumarragako txapelketa ospetsua irabazi berri du eta dagoeneko Aspeko pilotariekin entrenatzen ari da.



Julen Castellanos denboraldi biribila egiten ari da afizionatu mailan. Profesionaletara igarotzea da bere hurrengo erronka.

Raul Perez

Joan den astebukaeran Zumarragako txapelketa irabazi zenuen eta Intxaurrondoko txapelketako finalerdietarako sailkatu zara. Denboraldi biribila ezta?

Pozik egotekoa da, zalantzarik gabe. Urte hasieran Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen eta aurreko astean, Zumarragako txapelketa ospetsua. Egia esanda, txapelketa berezi samarra izan da. Martinez de Eulatek eta biok finalaurdenenak zein finala nahiko erraz irabazi genituen arren, finalerdian estu eta larri ibili ginen, partidua galtzeko zorian izan ginen. Intxaurrondon irabazteko grina handia dut, iaz finala galdu baike nuen.

Aurreko urteetan Altzako talde batean izan zara. Orain, berriz, Intxaurrondokoan. Zergatik?

Boskotarrak taldean aritu naiz betidanik. Dena den, taldeko gainerako pilotariekin Altzako beste talde batera aldegin zuten eta bakarrik geratu nintzen. Orduan, Intxaurrondora jotzea erabaki nuen eta oso pozik nago. Hemen Altzan baino gehiago arduratzen dira pilotariak eta talde honetan jarraitzeko asmoa dut.

21 urte dituzu eta Aspeko profesionalekin entrenatzen duzu jada.

Egia esan, txiripaz izan da. Pilotaleku batean partidu bat ikusten ari nintzela, pilotazale batzuekin hitz egiteko aukera izan nuen eta hauek egin zidaten bidea Aspekoekin entrenatzen hasteko. Ilusio handia dut, besteak beste, Gastesi eta Olaizola anaiekin entrenamendu fisikoak egiteko aukera dudalako. Esperientzia paregabea da eta berehala nabaritu dut profesionalena aparteko mundua dela.

Profesionalismoaren atarian zaudenez, nola ikusten duzu gaur egun pilota?

Duela bi urtetik hona egoera zeharo aldatu da. Lehen, bi enpresa baino ez zaudenez, pilotari batek emaitzak ezezik izena ere izan behar zuen profesionaletara jauzia emateko. Orain berriz, lauzpabost enpresekin, gazteok aukera gehiago dugu. Dena den, ez da erraza.

Donostiar gutxi dituzue profesionaletan. Zer dela eta?

Donostian, eta Gipuzkoan orohar, pilotari gazte batek hamalau bat urte izan arte ez du partidurik jokatzeko. Nire iritziz, beranduegi izan daiteke zenbait akats erabat zuzentzeko. Bizkaian edo Nafarroan, ordea, lehenago hasten dira partiduak jokatzeko eta eskarmentua nabaritzen zaie beraien aurka jokatzeko duzunean.